

ERREFORMA ETA MURRIZKETEN AURREAN, EUSKAL HERRIAK SUBIRAUTZA EKONOMIKOAN OINARRITUTAKO ALDAKETA SOZIALA BEHAR DU

HERRIAabian! herritarrei ekainak 29ko greba orokorraren prestaketan, mobilizazioetan eta piketeetan parte hartzeko deia luzatzen die

Gobernu espainolak langile klasearen eskubideak murrizten dituen lan-erreforma dekretu bitartez aurrera ateratzen du beste behin, enpresentzako malgutasuna bultzatuz eta kaleraketak merketuz. Gauzak horrela, berriro igaroko da diru publikoa esku pribatuetara patronalari langileon kaleraketa merkeago atera dakion. HERRIAabian!-etik uste dugu aski dela. Aski dela inposaketetaz. Aski dela Europa eta EEBBek murrizketa hauek diseinatzeaz eta aski dela espainiar eta frantses gobernuek zein beraien sukurtsal autonomikoei murrizketa hauek inposatzeaz, gure ekinbide propiorako mugak oso agerian geratzen direlarik.

Ekainak 29ko greba

Hilaren 29an eskubide sozial eta laboralen defentsarekin hitzordu garrantzitsua dugu. Euskal Herriak lege kolpez inposaturiko murrizketa berri honi ezekoa ematen diola agerian uzteko herritarrak egun horren prestaketan era aktiboan aritzera eta egunean bertan piketeetan eta deitzen diren mobilizazioetan parte-hartzera animatzen ditugu. Era berean, egun horretan argi utzi behar dugu herri hau egunero-egunero aurrera ateratzen dugunok gure etorkizuna erabakitzeke eskubidea, baita alor sozioekonomikoari dagokionean ere, eduki behar dugula uste dugula, oinarritik eta planetako beste herri batzuekin elkarlanean egungo garapen ereduaren alternatiba eraiki ahal izateko. Beste mundo bat posiblea delako eta beste Euskal Herria bat beharrezkoa dugulako.

Ekainak 28 kontzentrazio zaratatsua Gasteizen

Greba orokorraren bezperan, HERRIAabian!-ek SEAren parean, Korreos Plazan, kontzentrazio zaratatsu bat deitzen du arratsaldeko 19.00etan.

Euskal Herrian, 2010eko ekainaren 25a